



EILASTASUNA

PRENTSA OHARRA

STEE-EILASek lan talde bat antolatu du El Salvador-eko bi komunitatetan irakasle lanetan aritu daitezen.

STEE-EILAS sindikatuak antolatuta 11 lagun arituko dira bolondres irakasle lanetan El Salvador-eko bi komunitatetan uztailean zehar. Bederatzi emakume eta bi gizon izango dira: 3 Bizkaikoak, 5 Gipuzkoakoak, 2 Nafarroakoak eta 1 Arabakoa. Uztailaren 1ean hartuko dute harako bidea eta uztailaren 30ean bukatuko dute hango lana.

Irakasle hauen zeregin pedagogikoa izango da haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasleei eskolak ematea eta irakasleen prestakuntzan laguntzea. Ikasleekin beste arlo batzuk ere landuko dira: gazteen animazio sozio-kulturala eta eskolaz kanpoko hainbat ekintza, besteak beste ingelesa.

STEE-EILAS sindikatuak EILASTASUNAREN bidez gauzatzen du bere elkartasun-kutxa azken 12 urte hauetan. Bi iturri ditu elkartasun-kutxa horrek: afiliatu bakoitzaren borondatezko ekarpena eta sindikatuaren aurrekontuetatik bideratutako parte bat. Eilastasunak urtero bultzatzen ditu hezkuntza proiektuak hainbat herrialdetan, besteak beste, El Salvadorren.

Honen harian, eta beste urrats bat eman nahian antolatu du Eilastasunak lehenago aipatutako lan talde hau. Bi komunitatetan egingo dute lan brigadista horiek, Cuscatlán izeneko departamentuan kokaturik dagoen Suchitoto herrian. El Salvador hiriburutik 20 bat kilometrora dago herri hau. Komunitate horietako hainbat familiatan biziko dira, bertakoekin elkarbizitza eta elkarlana modu eraginkorragoan egin ahal izateko.

Aurrez hainbat liburu eta material didaktiko bidali ditu bertara Sindikatuak, Euskal Herriko ikastetxeetan jasotakoak. Material horren bidez brigadistek errazago egingo dute lan eta, aldi berean, bertako irakasleek aukera izango dute hasitako lanari jarraipena emateko.

STEE-EILAS sindikatuaren ustez, lan talde honi esker errazago ezagutuko ditugu bertako beharrak eta elkarlanerako modu berriak, ondorengo urteetan gure asmoari jarraipen egokia eman ahal izateko.

Esperientzia onuragarria izatea espero dugu, bai Euskal Herriko irakasleentzat, bai bertako irakasle eta komunitateentzat elkar ezagutza eta elkarlana sakontzeko asmoan.